

iritzia

liburu baten inguruan

ezker abertzalea eta klaseko nazionalismoa

"Perecimiento del Estado: Nacionalismo de clase" liburu bat aski berria da. Carmen Pino Per-tierra-k eta Alfonso Arnau Tornos-ek idatzia. Baina ez nator liburuaren aurkezpena egitera. Beraiek egin zuten; eta EGINek ere eman zigun. Liburua irakurri egin dut nik; eta neure irakurkera azaldu nahi dut hemen.

Tituluari begiratzuz bakarrik, aspaldiko arazo berbera astintzera datorrela esan ahal da: Estatu, Nazioa, Klasea... Hitze handiak! Eta hirurak oso nabarmenki elkarrekin konbinatuz, titulu erakargarriagoa asmatu dutela ematen du. Baina hortxe dago gakoa: Liburu hau ez datorrela Estatuaren eta Nazioaren arteko eztabaida, edo Nazioaren eta Klasearen artekoa berriro harrotzera, edonolako ikuspegi edo ideologia klasikotatik.

Tituluak berak adierazten du arazoa ipintzeko modu berria; ongi adierazi ere, nere ustez. Estatu, nazioa, klasea: hirurak doaz batean liburu honetan, eta ez bina-ka.

Liburua ez da filosofia politiko eta sozialaren hastapen abstraktu-ren bat. Espainiako Estuatuari da- gokio, eta horko Herri, Nazionalitate edo Nazioetan sortu eta indartu diren indar politiko eta sozial berriei: hau da, ezker berriari eta honen klaseko nazionalismoari. Talde, mugimendu eta erakunde politiko eta sozial horien pentsabidea eta jokabidea —gogoeta teorikoa eta praktika politikoak— aztertu dituzte egileek; indar ideologiko, politiko eta sozial berri bat sumatu dute. Herri guzti horietan nolabait suspertzen eta finkatzen ari dena, eta horren egoera azaltzen eta oinarri teori-koak sistematizotzen saiatu dira.

Hastapen egokia dela uste dut, Ezker berri horren eta Klase-na- zionalismoaren teorizazioa sakon- duz, sendotuz, zabalduz eta finka- tuz joateko. Horixe eskatuz dator, hain zuzen: "Reflexión profunda por parte de la nueva izquierda nacionalista para que pueda ser

realmente nacionalismo subver- sivo de nuestro sistema".

Ezker Berria, Klaseko Naziona- lismoa, "Nazionalismo abertzalea" eta Ezker abertzalea fenomeno beretsua adierazteko erabiltzen diren izen ezberdinak besterik ez dira. "Ezker abertzale" kontzeptu-ak garrantzi handia du liburu osoan. Autoreek diotenez, "el nacionalismo de clase, no cabe duda, tiene su cuna y su máximo desar- rollo teórico y práctico en Eus- kadri dentro del Estado, y segura- mente también en el conjunto de la nueva izquierda a nivel mundial".

Askotxo esatea ote den nago. Eta, dena dela, oraindik bide luzea egiteko dagoela uste dut, teoria eta praktika horiek sakon- tzeiko eta zabaltzeko. Praktikaren beraren baino teoriaren hutsunea handiagoa nabari da. Eta teoriarik gabe, nekez eraman daiteke prak- tika zuzen, koherente eta iraunko- rriak.

Nola nahi ere, eta pentsabidea garatuz joateko, horren mugarrak ezarritik eta finkatuz joan beharra dago aurrenik. Liburuaren ara- bera, hauek aurkitu uste dut nik:

1. Izadiari, gizarteari eta kultu- rari buruz eta horien barnean, hurbiltasunez, kidetasunez eta bi- hozkortasunez senditzeko eta bizi- tzeiko filosofiazko jokabide berri bat dago oinarrian.

2. Abiaburu horretatik ateratzen da hiru eratako autodetermina- zioa: kulturazkoa, politikoa eta ekonomikoa, klase Estatuaren suntsitzearen lehen urrats bezala.

3. Klaseko nazionalismoan ma- mitzen dira eta formulatzen abia- buru eta eskabide horiek.

4. Horren arabera jokabide politikoa, soziala, ekonomikoa eta kulturala demokrazia zuzenekoan eta eskuharkorrean konkretatzen da.

5. Horretarako beharrezkoa da erakuntza politikoa, herri era- kunde sektorialen koordinazioa izango dena, eta alderdi politiko gidari, zentraliztaile eta hegemoni- koa uxatuko duena.

6. Ezker abertzalearen taktika- ren funtsezko puntua jarkiera edo erresistentzia aktiboa da, mobili- zazioan oinarritua, eta kontsen- tsuaren politika ukatuko duena eta negoziazioen bidea ondorio bezala utziko duena.

7. Jarkiera aktibo horren eta mobilizazio-politika horren fun- tziotan joan behar du, nolana- hi ere, burruka armatuak. Eta Ezker Abertzaleak gauza izan beharko luke, bakezko jarkiera zibila, in- dartsua eta eragilea, antolatua eta bideratzeko.

8. Klaseko Nazionalismoak hel- burutzat eduki beharko duen gi- zarte politikoa berria, Konfede-razio bezala eratu beharko litzateke.

Jakina, puntu guzti horiek ez daude liburuan horrelaxe emanak. Irakurle bakoitzak bere erara irakurtzen du liburu; eta nik bide horixe egin dut, liburu hori irakurtzean. Eta etozein irakurle li- buru osoarekin erabat ados nekez gelditzen den bezala, nik ere ez daukat horko guztiakin bat etorri beharrik. Baina funtsezko analisia oso egokia eta eragingarria irudi- zten zait.

Konfederazioak, esate baterako, ez dauka esangura handirik Eus- kal Herriko Ezker Abertzalearen- zat. Garai batean PSOEK defen- ditzen zuen, oker ez baldin banabil. Independentziak indar handiagoa du gure artean. Eta Ezker Abertzaletik hori era ezber- dinez ulertzen bada ere, funtsean Euskal Herri Batua eta Euskal- duna besterik ez du esan nahi, klaseko nazionalismotik begiratzuz.

Ezker Abertzalearen klaseko nazionalismoak etenduraren poli- tika eskatzen du, eta horri eutsi behar dio, edonolako etsipenen kontra, benetan "subertsiboa" eta "klase-estatuaren" birrintzaila izango bada. Baina agian eten- dura-politika horrek taktikaren mailatik estrategiaren mailara pasa beharra dauka orain.

Etendura-taktikak jarkiera-tak- tika bihurtu beharra dauka, uste dudanez.

Paulo AGIRREBALTATEGI

bertso berriak

gilisastik jarriak

EGUNONka hasi da EGINen euskara, etxekoen pozgarri etsaien dardara; berri sugile honek gakartza plazara, gure mintzoa jasoz askatuko gara.

Gai eta tratamendu ederrez jantzita Alfabetatzea gaur hasi da korrika, EGUNON egin dugu ikasgaien aita, hauxe amesten dut nik hoherena baita.

Ez da isilik beste

konforme herria, hizkuntza estu eta berdintsu gerria; eskerrak datorrela euskaldun berria, ondo ongarriztatuz gure Aberria.

Gaurkoz, lau bertsookin, amaitzen dut txanda, esan behar zen dena ez dago esanda; euskara hutsez egin euskal propaganda, erdaraz sendotzen da erdararen landa.

URDULIZKO IÑAKI
GILISASTI

zokoa

Zorionak EGUNON jaio berriari. Nolakoa izango ote da EGUNON? Nolakoa izan behar? Horretaz nere eritzia jakin erazi nahi nizueke.

Orain arte, egunkari guztiak, EGIN ere, erdaraz dauzkagu. Albisteak irakurtzeko, erdaraz irakurri behar. EGUNONek egoera hau alda dezan eskatzen dut. Mini-egunkari bat izan dadin beraz. Nahi duzun bezain mini, baina funtzionala, bene- tkoa.

EGIN erostean, erdarazkoa alde batera utzi eta, euskarazko orri hau bakarrik irakurri ahal izan nahi nuke. Hemen bilatuko ditut eguneko albiste nagusiak, behar bezala laburturik baina seriotasun guztiarekin. Hori baino gehiago ere badakar —argazkiak, eritziak, berriketak, bertsoak, txistekak...— hainbat hobeto; baina lehen, mamia.

Euskara ez dela errentagarria? Nere ustez, guk errentagarri bihurtu behar dugu. Ni behintzat prest nago zazpi duro egunero pagatzeko euskal egunkari bat irakurtzeko, lau orrialdetako baizik ez izanik ere. Baina funtzionala baldin bada bakarrik. Ez dut pagatuko euskara apaingarri bezala erabilirik ikusteko, hainbat tokitan ikusi eta ikusten dudana bezala.

Alan KING

LARUNBATERO
eginekin
jaiegin